BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

5272

EBAZPENA, 2011ko urriaren 7koa, Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordearena, 2010-2011 ikasturtean lanbide-heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten ikastetxeei prestakuntza jarduerak egiteko emandako diru-laguntzak aldatzen dituena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko ekainaren 1eko Aginduaren bidez, 2010-2011 ikasturtean lanbide-heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten ikastetxeei prestakuntza jarduerak egiteko diru-laguntzetarako deialdia egin zitzaien.

Alde horretatik, 2010eko irailaren 28ko Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordearen Ebazpenaren bidez, diru-laguntzak eman zitzaizkien 2010-2011 ikasturtean lanbide-heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten ikastetxeei, prestakuntza jarduerak egin ditzaten.

Programatutako jarduera batzuen diru-laguntzak ez dira erabili aurkeztutako memoria ekonomikoen arabera; beraz, diru-laguntzak aldatu behar dira, eta beharrezkoa bada, ikastetxeek diru-laguntzak itzuli egin beharko dituzte ekainaren 1eko Aginduaren 21. artikuluak ezarritako baldintzetan.

Horren guztiaren ondorioz, hau da, aipatutako arauen arabera eta aplikazio orokorreko gainerako xedapenen arabera, honako hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Ikastetxeei emandako diru-laguntzen zenbatekoak aldatzea, I. eranskinean azaltzen den eran. II. eranskinean, berriz, azkenean osatu gabe geratu diren ikastaroak zeintzuk izan diren adierazten da.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka, gorako errekurtsoa jarri ahal izango da Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordearen aurrean, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urriaren 7a.

Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordea,
JOSÉ CARLOS CRESPO VELASCO.

I. ERANSKINA

IKASTETXEA	HASIERAKO DIRU-LAGUNTZAK (2010eko irailaren 28eko Ebazpena)	AMAIERAKO DIRU-LAGUNTZAK (2011ko urriaren 7ko Ebazpena)	GUTXIPENA/ EUROAK
BIZKAIA			
CPEPS Zabalburu	10.263,00 €	8.333,00 €	1.930,00 €
CPES San Luis	7.020,00 €	5.120.00 €	1.900,00 €
CPES Lea-Artibai	20.805,00 €	18.905,00 €	1.900,00 €
		GUZTIRA……	5.234,00 €

II. ERANSKINA

IKASTETXEA	IKASTAROA
BIZKAIA	
CPES Zabalburu BHIP	«Muestreo en general y biológico en particular»
CPES San Luis BHIP	«Dinamización de grupos y aprendizaje colaborativo»
CPES Lea-Artibai BHIP	«Procesos de mecanizado de alto rendimiento: fresado»